

**BIDEZIDOR KIROLEKO
ARGAZKIAK ETA
KRONIKATXOAK 6**

Billabona-Amasa-Txertota (Goiburu)-Andoain (2018-07-13)



Sorginen Zubiaren ondoan talde osoa

<p>Zeru garbia zoragarria baina lurrean lokatza, hirurogeita lagun baginen poliki-poliki martxa. Halakoetan zenbaitek badu oso mintzo aberatsa, belardietan ardiak eta haien ondoan bildotsa.</p>	<p>Heldu gazteok koloredunak Irrikan gara ibiltzeko, bide honetan ba ote dugu arriskurik amiltzeko? Sorginen zubi ondo-ondoan agindu edo antzeko, ezar gaitezen ordenaturik argazkia ateratzeko.</p>	<p>Maisu gisara erantzungo dut “hor da Sorginen Zubia”, Ibilbidean irakasgaia gaur Euskal Mitologia. “Basajaun hori Baztan aldean Anboton Dama Maria, Jentilak dira han Eratsunen finkatzen iruinarria”.</p>
--	---	---

(2015-03-06)

(2016-03-04)

(2017-02-24)

**Ostiralero ibiltariok
hor gabiltza herriz herri,
aldapa behera labainkorrean
prest laguntzeko elkarri.
Oinez joanda aztertuz goaz
herrixka eta baserri,
horrelakorik egin dezagun
guretzat baita pozgarri.**

(2018-07-13)



Sorginen Zubia, Andoaingo lurretan



Zutabe hauei zubia falta zaie

Irun-hirugurutzeta-Fikoba (2018-07-20)

Hirugurutzen entzun omen zen garai batean latina, meategiak kolore iluna zerua, berriz, urdina. Beruna eta zilar ugari baina geroan burdina, meatzaria lehertu zuten eta berdin ikazkina.

Zeru hodeitsu eta lanbrotsu zirimiru luzaroan, uztailean gaude Ramuntxo? bada, itxuraz, azaroan! Salbuespena dugu gaurkoa bitan da urte osoan, horrez gainera eguerdirako aterpearen beroan.

(2017-03-03)

(2018-07-20)



Hirugurutzetako labean ondoan eta bertako mapa





Hirugurutzetako labeen ondoan



Bertan, atsedenaldi laburrean



Platako itsasargirantz jaisten, baina horra iritsi gabe

Trntxerpe-Platako Itsasargia-Mendiola-Ulia-Donostia (2018-07-27)



Platako Itsasargia, hor aurrean

**Ulia aldean zuen taldeak
ikusi hainbat landare,
Plata faroa itsas aparra
zuhaitzen hainbat kolore.
Barne-barnetik atera eta
diosala zein dotore,
makilak altxa gurutzatuaz
gazteriari ohore.**

(2014-12-12)

**Mendiolako tarte honetan
sumatzen da hutsunea,
salatariak esan omen du
“bete behar da legea!”.
Ezkutaturik zegoen plakak
egiten zion kaltea?
noiz izango da abertzalea
bere herriko jabea?**

(2016-09-23)

**Mendiola, Ulia, Jaizkibel
paisaia da antzekoa,
itsasoaren kolore urdina
(e)ta berdea mendikoa.
Aterpearen terrazan bertan
dugu hamaiketakoa,
txokolatego turroi gozoa
ez zen Eguberrikoa.**

(2017-08-04)

**Tortilla omen “jugosa” oso
“urtsu” ez da egokia,
arratsaldean miatu behar
Ibon horren Hiztegia.
Haragi, arrain “heze-hezea”
adituak du jarria,
arrautzopilak izango ote
horien kategoria?**

(2018-07-27)



Koro eta karmen Ulia gainera iristen



Platako itsasargia eta kaioen kabia den harkaitza



Pasaiako badiaren sarrera, Arando Handia eta Azabaratza deritzan erlaitza

Zarautz-Santa Barbara-Askizu-Zumaia (2018-08-03)



Talde osoa, argazkilaria izan ezik (Maribi), Askizuko begiratokian



Santa Barbaratik Zarauzko ikuspegia



Ibilbidean zehar, mahastiez aparte, paisaia zoragarria



Zumaiako ikuspegi zabal eta aparta

<p>Mahats bilketa garaia denez hor dabilta traktoreak, eta bidean ikusten dira sagar gorri dotoreak. Frontoian, berriz, pilotakadak hutsez beterik, dorpeak, saiatu baina pilotariok ezin asmatu boleak.</p>	<p>Gauza ederrak egin daitezke gainera kostu merketan, gazte talde bat igaro baita irribarretsu benetan. Makilak altxa gurutzaturik gaztetxoan ohoretan, azpitik pasa etorkizuna beti era alaietan!</p>	<p>Bero handia egin digu gaur ibili arren gustura, Ekiak ez digu izorratuko ostiraleko ohitura. Goiz erdirako iritsi gara gosaltzera Askizura, fresko-freskoa topatu dugu bertan iturriko ura.</p>
--	---	--

(2017-09-22)

(2018-08-03)

(2018-08-03)

Donostia-Errondo-Añorga-Itsasalde-Añorga-Donostia (2018-08-10)

<p>Zer esan nahi du Atotxa hitzak? izan dugu gaur mintzagai, Madrilen bada honako izenik eta Egian ere bai. <u>Attawça</u> hitza mozarabea hurrengoaren andregai, aditu batek dio <u>Taucia</u> prerromanaren ezkongai.</p>	<p><u>Mata- matorral</u> gaztelaniaz guk, aldiz, sasiarte, Ramontxo honi nork eman dio galdetzearen artea? Erantzunaren bila gabiltza gaur bukatzen da astea, adin honekin komeni omen etengabe ikastea.</p>
---	--



Alegia-Beasain (2018-08-24)



Itsasondotik ere pasa behar da Beasainera joateko

**Udazkeneko eguraldiak
dakar berekin euria,
gorosti eta hosto gorrixkek
hornitzen dute mendia.
Ibiltariok beldurrik gabe
helmugan jarritz begia,
azaldu dugu nolakoa den
zahar??? gazteen grazia.**

(2014-11-21)

**Alegiatik atera eta
Beasain dugu gerora,
zirimiria ekarri gaitu
udazkeneko girora.
Behe-lainoa mendi hegian
ez du sartu nahi basora,
hurbildu zaigu eta heldu da
lagunarteko gozora.**

(2018-08-24)

Gaintzurizketa-Jaizkibel-Pasai Donibane (2018-08-31)



Mitxintxolan, taldearen argazkia

**Ibiltarion buru-gogoan
bai eguraldi zatarra!
iparralde eta mendebaleko
haize eta euri zakarra.
Emakumeak zazpi baziren
eta ni gizon bakarra,
Arartekoak hau ikusita
egingo luke negarra.**

(2015-08-14)

**Jaizkibeleko bidezidorrek
badute bere ahotsa,
barru-barruan ezkutaturik
isiltasunaren hotsa.
Horrez gainera ikuspegia
ez zait egiten arrotza,
Santa Anako eliza aurrean
gure bandera arrosa.**

(2016-08-12)



Jaizkibeleko lehen eta bigarren dorreoien arteko bidezidorrean



Kantauri itsasoa hondo-hondoan eta Inalurreta baserria beheko aldean

**Uda beroan ezinbestean
gorputzak behar du ura,
edan duguna xurgatzea da
eguzkiaren ohitura.
Izerditzean ondorioa
egarri eta hestura,
urgabetzean ibiltarioi
aldatzen zaigu itxura.**

(2017-08-04)

**Zenbaitek uste ez zegoela
Jaizkibelen aldaparik,
hasierako aldatza hori
ordaindu dute larrutik.
Pistara helduz samurtuko da
ez da sumatzen nekerik!
Mitxintxolako zabaldi hartan
baduzue atsedunik.**

(2018-08-31)

Orio (Ortzaika)-Txurruka-Kaia-Arraun elkarte-Orio (2018-09-14)



Talde osoa orioko kai berriaren itsasargian

**Arraun munduan oinarrizten da
Orioren historia,
hemen edonor izan daiteke
bertako arraunlaria.
Garai hauetan nork ez du jotzen
jainkotzat kirolaria?,
baina guretzat eredu da
Benito abeslaria.**

**Eguraldia lagun izanik
hurbildu gara portura,
gure begiak bideraturik
Getariako Sagura.
Itsasargitik agertzen zaigu
uharte baten modura,
gizakiaren eskurik gabe
irla izango zen hura.**



Orioko bidegorrian zehar ikusten diren txalupak



Bai Jaizkibelen eta baita Orion ere pinuen hostoak lehortzen ari dira gaitz baten bitartez